

Datorren azaroaren 20a Haurren Eskubideen Eguna Unibertsala dala-eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko umeen ordezkari talde bat Gernikako Batzarretxera etorri gara, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioak jasotzen dituen funtsezko printzipioetako bat gauzatzera. Printzipio horreek dira diskriminaziorik eza, umearen interes gorena eta bizitza eskubidea, -bizi-iraupenerako eta garapenerako eskubidea eta parte-hartzea. Gaur etorri gara laugarren hori gauzatzera, parte-hartzearena, hain zuzen be.

- Uste dogu gure haurtzaroa bizi eta gozatzeko eskubidea dogula. Etorkizuneko belaunaldia gara, gure gizartean bere lekua aurkitu behar dugu dauena. Hala ere, oraina ere bagara, beraz, heziak izatea eta, aldi berean, gure funtsezko eskubideak errespetatuak izatea nahi dogu, baita balio doguna erakusteko aukerak izatea be, pertsona moduan garatuz joateko.
- Uste dogu parte-hartzerako dogun eskubidea funtsezkoa dala pentsatzen doguna eta sentiduten doguna adierazteko, errespetuz, gure gizartearen hobekuntzarako giltzarri izan ahal izan gaituzan. Giza-tegoko garen arren, guk be adina gorabehera, adierazpen-askatasuna garrantzizkoa dala uste dogu, gure ahotsa entzunarazo eta gizarteaz dogun ikuspegia azalartzeko tresna moduan.
- Edozein pertsonak, neska zein mutil izan, askatasuna izan behar dau bere identitatea aukeratzeko. Badakigu estereotipoek eta aurreretikiek oztipoak eragiten dituen gizartean bizi garena, askotan kalte emozionalak eta psikologikoak eragin ahal dituen kritiken bitartez. Horregaitik eskatu behar dogu gure identitatea aukeratzeko askatasuna eta hartutako erabakian laguntza izatea. Garen moduan, ditugun birtute eta akats eta guzti, agertu nahi dogu, horrexek egiten gaitualako nor.
- Bardintasunez eta ezetarik indarkeria eta bazterkeria barik tratatuak izateko eskubidea dogu. Pertsona guztiak izan behar dira errespetatuak eta onartuak, eta aukera bardintasuna izan behar dabe, jatorria, sexua, identitatea, adina, hizkuntza, erlijioa, maila ekonomikoa, ezaugarri fisiko zein mentalak gorabehera. Ditugun ezbardintasunak dira, bada, gure gizartearen aberasten dabenak.
- Gure gizarte honetan bermaturik egon behar leuke pertsona guztien ongizateak. Halanda ze, genero indarkeria (esparri eta adin guztietan) prebenitzea bermatu egin behar da hartu-emon afektibo-sexualak bardintasunezkoak, errespetuzkoak eta osasungarriak izan daitezcan. Bizi gura dogun gizartean pertsona guztiek ongizate fisikoa eta mentala izatea nahi dogu, inor ezetarik indarkeriaren biktima izan ez daiten.

Aurreko guztiagaitik, bada, agintean dagozan pertsonen eskatzen deutsegu ahaleginik eta handiena egin daiela gure eskubideak, eta gizarte guztiarenak, bermatzeko, eta erabagiak hartzen dituenean, umeentzako eta hurrengo belaunaldientzako onena zer dan pentsatuta jokatu daiela.

Gizarte honen oraina eta etorkizuna gara eta entzun, babestu, maitetu eta ulertuak izatea nahi dogu, gure eskubideak bermatu daitezala. Baina, era berean, eskatu egiten dogu bidea erakutsi dakigula, guztien artean Bizkaia hobea lortzeko, non genero indarkeriaren arazo desagerrarazo eta, inork (emakumezkoek batez be) egunero-egunero halakorik sufritu beharrik izan ez daian, benetako bardintasunaren eskutik emakumezkoen aurkako indarkeria betirako ezabatu dalako.

Era berean, kontuan hartuta landu dogun gaia Genero Indarkeriaren Prebentzioa izan dala, haur eta nerabeen eskubideen ikuspuntutik, uste dogu ezinbesteko dala azaroaren 25a beren-beregi aitatzea, egun horretan ospatzen da-eta Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna. Hori guztia aintzat hartuta eta Giza Eskubide guztiak errespetatuko dituen bardintasun-gizarte lortzea helburua izanik, honakoak adierazoten ditugu:

- Bizitzarako eta garapenerako eskubideak dauen garrantzia gogorazoa daitela nahi dogu, eta adingabeak garan aldetik, uste dogu arazoetatik eta desbardintasunetatik babestu egin behar gaituela. Gure bizitzako arlo guztietako babesa behar dogu, genero indarkeriaren biktima zuzenak izan ez gaituzan.
- Gure gorputz- eta buru-osasuna lehentasunezkoa da. Pertsona guztiek baztertuak izateko bildur barik bizi behar dabela uste dogu, tratu txarren edo edozein indarkeriaren biktima izatek salbu, emakumezkoak batez be. Alkarbizitza sana lortu gura dogu, bizitzarako eta osasunerako eskubideen ganean eregia.
- Familiak eta bertan sortutako loturek berebiziko eta funtsezko balioa dabe. Etxe barruko indarkeria bako gizarte lortu gura dogu, familia-eredua gora-behera, uste dogulako familia bardintasun-espazioa izan behar dauela, non hezibide egokia jaso eta pertsona baloratu, babestu, lagundu eta maitatuak sentidu gaituzan.
- Eskoletan ikasi, hezi eta hazi egiten gara. Pertsona guztiak horren parte izatea gura geunke, estereotipo barik, horrelakoek galarazo egiten deuskue-eta guk geuk gura dogun moduan izatea, besteekin jardutea edo jolastea. Ziurtatu egin nahi dogu pribilegiarik ez izatea espazioak erabiliterakoan, ez eta generoen arabera bereizketarik be, ikasle guztiek hazi eta aurrera egin daien. Era berean, azpimarratu egiten dogu eskoletan inguruan ditugun guztien garrantzia, bai eta alkarbizitza guztientzako aberasgarri izateak dauena be, inor baztertu barik eta errespetuan oinarritutako loturak sortuz.
- Gure astialdia aisialdirako espazioa izan behar da, pertsona guztiak bardintasunez errespetatzeko lekua, eredu eta molde estereotipatu bako, gure gizarte ez banatzeko eta ereduotara makurtzen ez diran pertsonak ez baztertzeko. Ezinbestekotzat jotzen dogu gure gustuen eta zaletasunen ganean aukeratu eta erabagi ahal izatea, aurreretxi barik. Era berean, arbuiatu egiten dogu gure aisialdian gertatzen dan edozein indarkeria, bardin dala non eta noiz, zein berbazkoa, fisikoa, psikologikoa, soziala, sexuala edo ekonomikoa izatea.

Con motivo del Día Universal de los Derechos de la Infancia que será el próximo día 20 de noviembre, una representación de niñas y niños del Territorio Histórico de Bizkaia acudimos a la Casa de Juntas de Gernika a ejercer uno de los cuatro principios fundamentales que recoge la Convención sobre los Derechos de la Infancia y que poseemos junto al de no discriminación; interés superior de la Infancia y el derecho a la vida; y la supervivencia y el desarrollo. Este principio es el de participación.

- Creemos que tenemos derecho a vivir y disfrutar de nuestra infancia. Somos la generación futura que deberá encontrar su lugar en nuestra sociedad y, también somos el presente, por lo que queremos que nos eduquen a la vez que se respetan nuestros derechos básicos y, del mismo modo, se nos den oportunidades para poder demostrar nuestra valía y seguir creciendo como personas.
- Consideramos que nuestro derecho a la participación es esencial para expresar, desde el respeto, lo que pensamos o sentimos, y poder ser una pieza fundamental en la mejora de nuestra sociedad. No por ser más jóvenes se debe olvidar que también en nuestra edad consideramos importante la libertad de expresión como herramienta que permita escuchar nuestras voces para aportar y sumar nuestra visión de la sociedad.
- Cualquier persona, sea chica o chico, tiene que ser libre para poder decidir su identidad. Sabemos que vivimos en una sociedad donde los estereotipos y los prejuicios nos crean obstáculos, a menudo en forma de críticas, que pueden crear daño emocional o psicológico, y es por eso pedimos ser respetados y acompañados en la toma de decisión sobre nuestra identidad. Queremos poder mostrarnos con nuestras virtudes y defectos, pues son lo que nos hacen ser diferentes.
- Tenemos derecho a que se nos trate con igualdad, sin violencia ni discriminación de ningún tipo. Todas las personas deben ser respetadas, aceptadas, y deben tener las mismas oportunidades, independientemente de cual sea su origen, sexo, identidad, edad, idioma, religión, posición económica, características físicas o mentales. Nuestras diferencias son las que aportan riqueza a nuestra sociedad.
- Vivimos en una sociedad en donde el bienestar de todas las personas debería estar asegurado por lo que la prevención de la violencia de género, en todos los ámbitos y edades, debe ser garantizada para establecer unas relaciones afectivo-sexuales igualitarias, respetuosas y saludables. Queremos vivir en una sociedad donde todas las personas tengan bienestar físico y mental, sin ser víctimas de violencia de ningún tipo.

Asimismo, y dado que este año hemos puesto el foco en la Prevención de la Violencia de Género desde los Derechos de la Infancia y la Adolescencia, creemos indispensable hacer mención especial al día 25 de noviembre, Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer. Por todo ello, y con el fin de crear una sociedad igualitaria donde todos los Derechos Humanos sean respetados, exponemos lo siguiente:

- Estimamos oportuno recordar la importancia del derecho a la vida y al desarrollo, y, como menores, consideramos que debemos ser protegidos de los problemas y las desigualdades. Una protección en todos los ámbitos de nuestra vida para evitar que seamos víctimas directas de casos de violencia de género.
- Nuestra salud física y mental es prioritaria. Queremos que cualquier persona pueda vivir sin miedo a ser discriminada, víctima de malos tratos u otro tipo de actos violentos, especialmente en el caso de las mujeres. Buscamos una convivencia sana, construida sobre los derechos de la vida y la salud.
- La familia y los vínculos que se crean en ella tienen un valor único y esencial. Buscamos una sociedad libre de la violencia doméstica, sin importar el modelo familiar, puesto que creemos firmemente que la familia debe ser un espacio de igualdad en donde, junto a recibir una educación apropiada, nos sintamos personas valoradas, protegidas, apoyadas y amadas.
- Los centros escolares son un lugar donde aprendemos, nos formamos y crecemos. Nos gustaría que todas las personas formaran parte de ello, dejando de lado estereotipos que nos impidan ser, interactuar, jugar como queramos. Queremos asegurarnos de que no haya privilegios a la hora de utilizar espacios, ni tampoco división por géneros para que todo el alumnado pueda crecer y desarrollarse. Asimismo, subrayamos la importancia hacer de la convivencia una experiencia enriquecedora para todas las personas en los centros, sin exclusiones de ningún tipo, creando lazos basados en el respeto.
- Nuestro tiempo libre debería ser un espacio de entretenimiento que respetara a todas las personas por igual, libre de modelos o patrones estereotipados que dividan nuestra sociedad y discriminen a aquellas y aquellos que no los siguen. Vemos imprescindible poder elegir y decidir sobre nuestros gustos y nuestras aficiones sin prejuicios. Del mismo modo, rechazamos cualquier tipo de violencia en nuestro tiempo libre, ya sea verbal, física, psicológica, social, sexual o económica en cualquier momento y lugar.

Por todo lo anteriormente expuesto, pedimos a las personas que gobiernan que se esfuercen al máximo para garantizar nuestros derechos, y los de toda la sociedad, para que tomen decisiones pensando en lo que es mejor para la infancia y las futuras generaciones.

Somos el presente y el futuro de esta sociedad, y queremos que nos escuchen, nos protejan, nos quieran, nos comprendan y que garanticen nuestros derechos, pero también les pedimos que nos muestren el camino para, entre todas las personas, hacer una Bizkaia mejor. Un lugar donde la violencia de género no sea un problema por el que muchas personas, especialmente las mujeres, tengan que sufrir día a día, una Bizkaia con una efectiva igualdad que logre desterrar la violencia contra las mujeres.